



**DEIALDIA, BI IZANGAI-ZERREDA –BAT PRESTAKUNTZARAKO ETA BESTEA ALDI
BATERAKO KONTRATAZIORAKO– HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO,
EUSKARADUNAK, PEDAGOGIAN LIZENTZIADUN LANPOSTUAN ARITZE ALDERA,
IRUÑEKO UDALEAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN GERTATZEN AHAL
DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA**

**LEHEN ARIKETA:
GEHIENEKO PUNTUAZIOA: 40 PUNTU
IRAUPENA: 60 MINUTU**

2025/04/10

**EZ PASATU HURRENGO ORRIRA
HASTEN AHAL ZARELA ADIERAZTEN ZAIZUN ARTE**



Ayuntamiento de
Pamplona | **Iruñeko**
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e



1. 39/2015 Legea. Administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoak haien berri jakinaraziko die beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei, artikulua hauetan aurreikusitako moduan. Aukeratu erantzun zuzena:
 - a) Jakinarazpena hamabost eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik zenbatuta.
 - b) Jakinarazpena hogeit hamar eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik zenbatuta.
 - c) Jakinarazpena hamar eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik zenbatuta.
2. 5/2018 Foru Legea. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Aukeratu erantzun zuzena:
 - a) Edozein pertsona fisiko edo juridikok, publikoa nahiz pribatua izan, eskubidea du informazio publikoa eskuratzeko, dela norberaren izenean eta banaka, dela herritarrak bildu edo ordezkatzeko dituzten erakunde legez eratutako izenean, aurrez eskatu gabe.
 - b) Eskubide hori erabiltzeko, beharrezkoa izanen da eskaeran arrazoiak ematea, foru lege hau aipatzea eta interesa egiaztatzea.
 - c) Administrazio Publikoek behar diren antolaketa neurriak hartu behar dituzte informazio publikoa eskuratzeko eskubidea betetzen dela bermatzeko, titulu honetan ezarritakoari jarraikiz.
3. 3/2018 Lege Organikoa. Adingabeen adostasun-ematea. Aukeratu erantzun zuzena:
 - a) Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da hamalau urte baino gehiago baditu, ez bestela.
 - b) Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da hamasei urte baino gehiago baditu, ez bestela.
 - c) Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da hemezortzi urte baino gehiago baditu, ez bestela.
4. 3/2007 Lege Organikoa: Zuzeneko eta zeharkako bereizkeria. Aukeratu erantzun zuzena:
 - a) Sexuan oinarritutako zeharkako bereizkeria da, antzeko egoera batean, sexuaren ondorioz, pertsona batek, beste batekin alderatuta, tratatu ez hain mesedegarria jasatea, jasan izana edo jasateko arriskua izatea.
 - b) Sexuan oinarritutako zeharkako bereizkeria da itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo eginera batek sexu jakin bateko pertsonendako desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsonen begira, non eta xedapen, irizpide edo eginera horiek ez diren modu objektiboan justifikatzen, xede legitimo batekin, betiere, xede horiek lortzeko bideak beharrezkoak eta egokiak izanda.
 - c) Sexua dela-eta zeharkako bereizkeria egiteko agindu oro soilik da bereizkeria.



5. 3/2007 Lege Organikoa: Administrazio publikoek, kasuan kasuko eskumenen esparruan, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatuz, eginbehar hauek izanen dituzte:
 - a) Edozein bereizkeria-mota iraunaraztea eragiten duten oztopoak sustatzea, emakumeen eta gizonen artean berdintasun eragingarrirako baldintzak eskaintzeko asmoarekin, enplegu publikoa lortzeari eta lanbide-karreraren garapenari dagokienez.
 - b) Erraztasunak ematea familiako eta laneko bizitza uztartzeko (norberaren bizitza 3/2007 Legetik kanpo geratzen da), lanbide-aurrerakuntzari kalterik egin gabe.
 - c) Hautaketa- eta balorazio-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.
6. 3/2007 Lege Organikoa: Oporraldiak bat egiten duenean haurdunaldiak, erditzeak edo edoskialdi naturalak eragindako aldi baterako ezgaitasunarekin, edo amatasun-baimenarekin, edo edoskialdiaren luzapenarekin:
 - a) Enplegatu publikoa den emakumeak eskubidea izanen du oporrak beste data batean izateko, nahiz eta opor horiei dagokien egutegiko urtea amaituta izan.
 - b) Ez dute eskubide hori izanen aitatasun-baimena baliatzen ari direnek.
 - c) Enplegatu publikoak eskubidea izanen du aitatasun edo amatasun baimena kobratzeko familia-unitatea ekonomikoki babesgabea bada.
7. 2/2018 Foru Legea. Foru lege hau entitate hauek egiten dituzten kontratu publikoei aplikatuko zaie:
 - a) Nafarroako Parlamentua, Kontuen Ganbera, Nafarroako Arartekoa eta Nafarroako Industriaren Elkartea.
 - b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoak.
 - c) Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Urrutiko Hezkuntzarako Iruñeko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea.
8. 2/2018 Foru Legea. Hornidura-kontratuen definizioa. Honako hauek joko dira hornidura-kontratutzat:
 - a) Xede dutenak telelanerako ekipamendua eta sistemak eskuratu eta errentamenduan hartzea.
 - b) Xede dutenak neurrira garatutako ordenagailu programak eskuratzea.
 - c) Xede dituztenak informazioaren tratamendua, horretarako gailuak eta programak.
9. 2/2018 Foru Legea. Erreklamazioa ebaztea. Erreklamazioa ez onartzeko arrazoiak izanen dira:
 - a) Epearen barruan aurkeztea.
 - b) Erreklamatuak legitimaziorik ez izatea.
 - c) Auzitegiak eskumenik ez izatea.

10. Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Iruñeko 2030 Estrategiak helburu hauek ditu, besteak beste:

- a) Hiri-ingurunea lehengoratu eta birnaturalizatzea, eta Iruñeko gizartean klimaren inguruko kultura ezartzea.
- b) Tokiko energia-eredua deskarbonizatzea eta mugikortasun-eredu osasungarri, efiziente eta jasangarria inplementatzea.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

11. Hau da Reggio Emilia hezkuntza-esperientziaren pedagogorik ezagunena:

- a) Francesco Tonucci.
- b) Loris Malaguzzi.
- c) Battista Quinto Borghi.

12. Waldor pedagogia autore honen ideietan oinarritutako hezkuntza-sistema da:

- a) Friedrich Fröbel.
- b) Johann Heinrich Pestalozzi.
- c) Rudolf Steiner.

13. "Hezkuntza Komunitateen Gida"-ren arabera, hauek dira Arrakastarako hezkuntza-jarduketak:

- a) Nazioarteko ebidentzia zientifikoaren arabera edozein motatako testuingurutan hezkuntza-emaitzak gehien hobetzea lortzen duten jarduketak.
- b) Azterketa narratiboari loturiko jarduketak.
- c) Ikerketa enpiriko hipotetiko-deduktiboari loturiko jarduketak.

14. Emmi Pikler-ek lan hau idatzi zuen:

- a) *La estimulación precoz desde el nacimiento* (Jaiotzetik estimulazio goiztiarra).
- b) *Moverse en libertad. Desarrollo de la motricidad global.* (Askatasunez mugitzea. Motrizitate globalaren garapena).
- c) Aurreko bi erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

15. El Martinet eskola-institutua:

- a) Ikastetxe publiko bat da.
- b) Itunpeko ikastetxe pribatu bat da.
- c) Ikastetxe pribatu bat da.

16. *En diálogo con Reggio Emilia* (Reggio Emiliarekin elkarrizketan) lanean, Carla Rinaldik:

- a) Helburu didaktikoak dituen curriculum-programazio bat nola egin azaltzen du.
- b) Dokumentazioaren eta ebaluazioaren arteko harremana du hizpide.
- c) Testuinguru sozial eta kultural jakin bateko nerabeekin zerbitzu-ikaskuntzako proiektuak nola martxan jarri azaltzen du.

17. Heike Freireren buletinak honela du izena:

- a) “5 semillas”.
- b) “3 colores”.
- c) “Enraizados en la Tierra”.

18. Heike Freire autoreak honi buruz dihardu *Patios vivos para renaturalizar la escuela* liburuan:

- a) Osasuna, ongizatea, erresilientzia eta gizakien garapen osoa.
- b) Play ground direlakoak edo jolasguneak, ikastetxeetako patioak egituratzeko modu antolatzaileak baitira.
- c) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

19. Hau da Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren gaur egungo lehendakaria:

- a) Joxe Abaurrea.
- b) Maider Beloki.
- c) Aitziber Campión.

20. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Ildo Pedagogikoaren printzipio komunetako tituluetako bat hau da:

- a) Estimulazio goiztiarra.
- b) Ebaluazio formatiboaren balioa.
- c) Sukaldea edukitzearen balioa.

21. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Ildo Pedagogikoan honako hau aipatzen da:

- a) Holismoa.
- b) Erritua.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

22. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Estatutuen arabera, hauek dira gobernu-organoak:

- a) Udaleko Osoko Bilkura eta Herritarren Batzordea.
- b) Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Gobernu Batzordea, Lehendakaria eta Lehendakariordea.
- c) Herritarren Aferen Batzordea eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Gobernu Batzordea.

23. Iruñeko Udaleko Haur Eskolek haur hauei ematen die zerbitzua:

- a) Haur-hezkuntzako etapan dauden haurrei.
- b) 0-2 urte bitarteko haurrei.
- c) Haur-hezkuntzako lehen zikloko haurrei.

24. Serafin Antúnez Bartzelonako Unibertsitateko Pedagogia Fakultateko katedradunaren arabera (Didaktika eta Hezkuntza Antolamenduko Departamentua):

- a) "Ikastetxearen Heziketa Proiektu deritzogu ikastetxe bateko irakasleen talde osoak adostutako erabaki egituratuen multzoari, helburu duena ikastetxearen jarduketei koherentzia handiagoa ematea, Errege Dekretuak gauzatuz esku-hartze didaktikorako proposamen globalekin, testuinguru jakin batera egokituak".
- b) "Ikastetxearen Heziketa Proiektuak funtsezko gaitasunen Unitate didaktikoak zehazten ditu hezkuntza-etapa desberdinetan".
- c) "Ikastetxearen Heziketa Proiektua kudeaketarako tresna bat da, ikastetxeko testuinguruarekin koherentea, eta ikastetxearen nortasun printzipioak eta helburuak ezartzen ditu, eta erakundearen antolakuntza-egitura adierazten du".

25. El Martineteko hezkuntza-esperientziari buruzko *Entramados* (Saretuak) liburuan zera adierazten da:

- a) Entzuketa konprometituak pertzepzioa zorroztu eta tokien, guneen, pertsonen eta harremanen parte izatera gonbidatzen gaituela, eta haurren ondoan bidea egiteko jarrera berriak proposatzen dituela.
- b) Dokumentazioa aukera handi baten gisan sortu zela, edo gure aurrean gertatzen dena aintzat hartzeko, kontatzeko edo irudikatzeko jarrera baten moduan.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

26. Alfonso Capitán Díaz Murtziako Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historiako katedradunaren arabera:

- a) Eskola Berrian, zigorrek eta zehapenek lotura zuzena dute egindako okerrarekin.
- b) Eskola Berriko irakaskuntza gertaeretan eta esperientzian oinarrituta dago.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

27. Josep M. Puig Rovira Bartzelonako Unibertsitateko Pedagogia Fakultateko Hezkuntzaren Teorian katedradunaren arabera:

- a) Ikaskuntza eta zerbitzua inguruneari irekita ez dagoen metodologia bat da.
- b) Ikaskuntza eta zerbitzuaren muina oinarritzko hiru dinamismoren egiturak osatzen du: herritarren beharrak edo erronkak, komunitateari zerbitzua ematea, eta edukiak, gaitasunak eta balioak ikastea.
- c) Aurreko bi erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.



28. Maribel de la Cerda pedagogoaren arabera:

- a) IKASKUNTZA ETA ZERBITZUAN, kooperazio-prozesuak metodologiaren berezko ezaugarri baten gisan agertzen dira.
- b) IKASKUNTZA ETA ZERBITZUAN, ez da beharrezkoa elkarren artean irtenbideak bilatzea arazoei aurre egiteko.
- c) IKASKUNTZA ETA ZERBITZUAN, ez dira errazten ikaskuntza kooperatiborako oinarritzotzat hartzen diren baldintzak.

29. Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren arabera, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena, baieztapen hauetako zein da zuzena?:

- a) Hezkuntzaren arloan eskumena duten Estatuko Administrazio Orokorraren organoak eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioen organoak dira Hezkuntza-administrazioak.
- b) Hezkuntzaren arloan eskumena duten Estatuko Administrazio Orokorraren organoak, Autonomia Erkidegoetakoak eta Tokiko Administrazioetako organoak dira hezkuntza-administrazioak.
- c) Aurreko bi erantzunetako bat bera ere ez da zuzena

30. Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren arabera, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena, bigarren hezkuntza honela banatzen da:

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondokoa eta Batxilergoa.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondokoa.

31. Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren arabera, zer da “Beren familia, natura eta gizarte ingurunea behatu eta esploratzea, Nafarroako berezko ezaugarri batzuk bereiztea eta izaki bizidunekiko eta ingurumenarekiko begirune eta zaintza jarrerak garatzea”?

- a) Haur Hezkuntzako helburu bat.
- b) Lehen Hezkuntzako helburu bat.
- c) Aurreko bi erantzunak okerrak dira.

32. Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren arabera, *ikaskuntza egoerak*:

- a) Haurrek heldutasunera bidean pasatzen dituzten etapak errespetatuz planteatu behar dira, ikaskuntza behartzeko.
- b) Desafio edo arazo bat planteatu behar dute, haurren adin eta garapenaren araberrako konplexutasuna izanen duena.
- c) Ikaskuntza egoerak sormenez ebazteko, etapa antolatzen duten hiru arloetan ikasitakoa abian jarri behar da modu integratuan.

33. Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren arabera, baieztapen hauetako zein da okerra?

- a) Haur Hezkuntza haurrak jaiotzen direnetik bost urte betetzen dituzten urte naturalera arteko hezkuntza-etapa da, eta nortasun propioa du.
- b) Haur Hezkuntza bi ziklotan antolatzen da, eta bakoitzak hiru ikasturte hartzen ditu. Lehen zikloa haurrek zero urte dituztenetik hiru urte betetzen dituzten urte naturalera artekoa da, eta bigarrena, hiru urte betetzen dituzten urte naturaletik sei urte betetzen dituzten urte naturalera artekoa.
- c) Haur Hezkuntzaren helburua da ikasleak modu integralean eta harmoniatsuan garatzea arlo guztietan: fisikoan, emozionalean, sexualean, afektiboan, sozialean, kognitiboan eta artistikoan.

34. Ekainaren 22ko 67/2022 Foru Dekretuaren arabera, baieztapen hauetako zein da okerra?

- a) Irakurtzeko ohitura sustatzeko eta irakurmena menderatzera iristeko, Hezkuntza Departamentuak irakurketa eta alfabetatzea sustatzeko planak bultzatuko ditu hainbat hedabide, teknologia eta hizkuntzatan.
- b) Irakurtzeko ohitura sustatzeko eta irakurmena menderatzera iristeko, familien edo legezko tutoreen eta boluntarioen laguntza izanen da, eta praktika egokiak partekatuko dira.
- c) Irakurtzeko ohitura sustatzeko eta irakurmena menderatzera iristeko, ikastetxe guztiek astean hiru ordu eskainiko dizkiote irakurketari, bakoitzak bere hezkuntza-proiektuan jasotako moduan.

35. Ekainaren 22ko 67/2022 Foru Dekretuaren arabera, nork emanen ditu ikastetxeek curriculum indartzeko edo aberasteko planak egiteko orientabideak, behar hori duten ikasleen konpetentzia-maila hobetu dadin?

- a) Ikastetxeko klaustroak.
- b) Eskola-kontseiluak.
- c) Hezkuntza Departamentuak.

36. Ekainaren 22ko 67/2022 Foru Dekretuaren arabera, Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen baldintzetan, posible izanen al da adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleen eskolatzea malgutzea, etapako iraupena ikasmaita bat murrizteko, aurreikusten denean hori dela neurri egokiena ikaslearen oreka pertsonala eta sozializazioa garatzeko, baldin eta neurri arruntak aski izan ez badira ikaslearen hezkuntza beharrei erantzuteko?

- a) Bai
- b) Ez
- c) Soilik Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren Orientazio Bulegoak kasua aztertu eta txosten bat helarazten badu, eta txosten hori baieztatzeko aldea bada.



37. Noren eskumena da titulu akademiko eta profesionalak eskuratzeko, jaulkitzeko eta homologatzeko baldintzak, eta hezkuntzarako eskubidea bermatzeko oinarrizko arauak ezartzea?

- a) Estatuarena, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren bitartez.
- b) Autonomia Erkidegoena, Hezkuntza Departamentuen bitartez.
- c) Tokiko erakundeena.

38. Hauen artean banatzen dira hezkuntzako eskumenak:

- a) Estatuko Administrazio Orokorraren eta Autonomia Erkidegoen artean.
- b) Estatuko Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoen eta tokiko administrazioen artean.
- c) Estatuko Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoen, tokiko administrazioen eta ikastetxeen artean.

39. Hezkuntzako zer eskumen dagokie tokiko entitateei?

- a) Eskola-egutegia osatzea.
- b) Tokiko titulartasuna duten eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetara bideratuta dauden eraikinak kontserbatu, mantendu eta zaintzea.
- c) Eskolako garraioa eta jangelak.

40. Ikasleen gurasoen elkarteei honako ahalmen eta funtzio hauek aitortzen zaizkie:

- a) Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak martxan jartzeko proposamenak egitea. Behin onartuta, jarduera horiek Urteko Programazio Orokorrean agertu behar dute.
- b) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuak eta material didaktikoen inguruko informazioa jasotzea.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

41. Besteak beste, honek bermatzen du familiek haurren hezkuntzan parte hartzen dutela:

- a) 1978ko Espainiako Konstituzioak.
- b) 8/1985 Lege Organikoak, uztailaren 3koak, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duenak.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

42. Bada hezkuntza-programa bat Iruñeko Udalaren Arte Garaikidearen Bildumako hainbat obra hautatu Iruñeko ikastetxeetan erakusteko, eta honela du izena:

- a) Bitartekaritza gaur egungo artearekin
- b) Lantegiak Nafarroako Unibertsitatearen Museoan (NUM)
- c) Ibiltari - En Mudanza



43. Helburu hauetako zein ez da *Ibilbide matematikoak Iruñean barna* programaren helburuen parte?
- a) Lankidetzaz oinarrituta ikastea, ikasleen artean ikaskuntza kooperatiboko teknikak erabiliz enigmak ebazteko.
 - b) Matematikak ikuspegi teorikoa oinarrituta ikastea.
 - c) Matematikak berriro aurkitzea ikasleen hurbileko errealitatean modu praktikoa erabiliz.
44. Nori zuzenduta dago *Antzerki-lantegiak* programa?
- a) Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleei.
 - b) Lehen Hezkuntzako 1. eta 5. mailako ikasleei.
 - c) Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei.
45. Nori zuzenduta dago Iruñeko Udalaren Joaquín Maya Musika Eskolako hezkuntza-eskaintza?
- a) 6 urtetik gorako haurrei.
 - b) 7 urtetik gorako haurrei, gazteei eta helduei.
 - c) 7 urtetik gorako haurrei eta gazteei.
46. Nola sartzen dira ikasle berriak Iruñeko Udalaren Joaquín Maya Musika Eskolara?
- a) Zozketa egiten da behin behinean izena eman dutenen artean.
 - b) Behin behinean izena eman dutenei maila egiaztatzeko proba bat egiten zaie.
 - c) Behin behinean izena zer hurrenkeratan eman duten, horren arabera.
47. Honela osatzen da Joaquín Maya Iruñeko Udalaren Musika Eskolako ikasketa-plana:
- a) Bi ziklo
 - b) Hiru ziklo
 - c) Bost ikasturte
48. Catalina de Oscáriz Iruñeko Udalaren Arte eta Lanbideetako Eskolak honako hauek eskaintzen ditu:
- a) Ikastaro monografikoak eta hiru hileko lantegiak.
 - b) Artearen Historian espezializatzeko ikastaroak.
 - c) Diseinu Artistikoko ikastaroak.
49. Nola sartzen dira ikasle berriak Iruñeko Udalaren Catalina de Oscáriz Arte eta Lanbide Eskolan?
- a) Zozketa egiten da behin behinean izena eman dutenen artean.
 - b) Behin-behinean izena eman dutenei maila egiaztatzeko proba bat egiten zaie.
 - c) Behin-behinean izena zer hurrenkeratan eman duten, horren arabera.
50. Iruñeko ikastetxe publiko hauetatik zeinek ez dauka pista estalirik patioan?
- a) San Frantzisko
 - b) El Lago - Mendigoiti
 - c) José María Huarte

ORDEZKO GALDERAK

1. Iruñeko Kultur Aniztasunari eta Herritartasun Inklusiboari buruzko I. Planaren helburu orokorretako bat da:
 - a) Kulturaren barneko ikuspegia sustatzea, elementu kulturantzun gisa, elkarbizitzan funtzio baztertzaila du eta.
 - b) Kulturarteko ikuspegia zeharkako elementu gisa sustatzea, tokiko esparruan gauzatutako estrategia, helburu eta ekintzen bidez.
 - c) Iruñean, hiri osoa aintzat hartuta, elkarleen ehun soziala sendotzea, eta ehun horrek hiriko Peñak hartzea eredutzat.
2. Iruñeko Udalaren Hezkuntzako Alorraren egitura aintzat hartuta, zer zerbitzu dagokio alor horri?
 - a) Ikastetxeen zerbitzua
 - b) Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua
 - c) Herriarren Partaidetzako Zerbitzua
3. Zer eginkizun eta funtzio ez dagokio Iruñeko Udalaren Hezkuntzako Alorrari?
 - a) Herriar guztiei zuzendutako hezkuntza-programak garatu eta sustatzea.
 - b) Unibertsitateekin lankidetzan jardutea.
 - c) Hiriaren gaineko ezagutza bultzatzea herriar guztien artean.
4. 2024-2025eko ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko dirulaguntza-deialdiaren arabera, zer jarduera ez dira laguntzen ahalko diruz?
 - a) Udalaren edo Nafarroako Gobernuaren programetan edo deialdietan sartutako jarduerak.
 - b) Curriculumaren edozein gairi buruzko ikaskuntzan laguntza emateko modu erregularrean ematen diren eskolak edo jarduerak, edo curriculumekoak ez diren beste batzuk, hala nola mekanografia, informatika eta abar.
 - c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
5. Zer urtetan sartu zen Iruña Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartean?
 - a) 1984an
 - b) 2001ean
 - c) 1995ean